



## KUDEAKETA POLITIKA

Enpresaren Misioa edo Xedea honako hau da:

*Ortzadar enpresa pribatua **DA**, askea, giza-arduraduna eta ekonomikoki jasangarria.*

*Ortzadarrek **gizarte esku hartze, kultura eta genero eta aukeren berdintasuna eta ingurumen arloko heziketa-zerbitzuetan, antolaketan eta diseinuan oinarritzea** du **HELBURU**, gizarte jasangarriagoa sustatuz.*

*Ortzadarrek Administrazio publiko, giza-ardura korporatibodun enpresa pribatu eta hirugarren arloko erakunde**ETARAKO** egiten du lan. Bere enpresa proiektua bezeroen beharrei irtenbide berritzaileak bilatzean datza, beti ere etengabeko hobekuntzari eta erakundearen langileen garapenari begira. Beraz, bezeroekiko elkarlan zuzena eta balore ekarpenean aurkitzen du bere **IZATEKO ARRAZOIA**.*

Ortzadar SL enpresak kalitate-politikaren eta ingurumen-politikaren printzipio orokorrak zehaztu ditu. Politika hori helburuak zehazteko eta berrikusteko eta bere zuzendaritza estrategikoa bermatzeko erreferentzia-esparrua da.

Beraz, honako printzipio hauek geure egingo ditugu:

1. Gure bezeroei beharrezkoa den sormena eta berrikuntza eskaintzea, eta gure lanbide-esperezian eta sektorearen ikuspegi bateratuan oinarritutako neurrirako soluzioak aplikatzea.
2. Gure bezero, erabiltzaile eta gizartearengan ingurumen irizpide jasangarriak sustatzea.
3. Gure zerbitzu eta programen garapenaren etengabeko jarraipena egitea, gure bezeroen gogobetetzea eta leialtasuna lortzeko.
4. Gure kalitate-sistema osatzen duten prozesu guzti-guztiak batera hobetzea.



## KUDEAKETA POLITIKA

5. Taldeko lana egitea, eta bezeroei arlo bakoitzeko azken joerak eskaintzeko lankidetzaren, portaera arduratsu eta iraunkorraren, parte-hartzearen eta etengabeko hobekuntzaren aldeko jarrerak garatzea.
6. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzea, eta enpresaren estrategia eta zerbitzu guztietan, baita kudeaketan ere, genero-ikuspegia txertatzea, zeharkako moduan.
7. Zentsuzko baliabide erabilpenaren eta produktu eta zerbitzuetan sortutako hondakinen kudeaketaren bitartez ingurumena babestea, kudeaketa horretan gure parte hartze aktiboa bermatuz.
8. Gure erakundearen eta gizartearen ohiko funtzionamenduan ingurumen-iraunkortasuneko irizpideak sustatzea.
9. Erakundearen eremu guztietan hizkuntza-eskubideak bermatzea, bai lan-harremanetan, bai herritarrentzako zerbitzuetan, euskararen erabilera normalizatzen laguntzearen.

ORTZADAR SL enpresaren Zuzendaritzak, printzipio horiek gauzatzeko asmoz, honako konpromiso hauek hartu ditu: bezeroaren betekizunak betetzeko konpromisoa, legezko helburuak eta arauzkoak betetzeko, kudeaketa sistemaren eraginkortasuna eta ingurumenarekiko jarduera zein portaera etengabe hobetzeko konpromisoa eta kudeaketa-politika betetzeko eskura dituen beharrezko baliabide guztiak eskaintzeko konpromisoa.

Bilbo, 2019ko martxoaren 5an  
Zuzendaritza taldea